



Arloa: IRAUNKORTASUNA



# Erosketa berdea



## 1. Helburua

Edozein produktu-erosketa arautzen duten ingurumen-irizpideak ezagutzea. Ontzien tipologia eta ontzi mota guztien ezaugarriak, honako hauei dagokienez: birziklatzeko eta berrerabiltzeko aukerak, aukera horien egungo egoera, birziklatzealdia, eta ontziei aplikatzen zaizkien tratamenduek ingurumenari eragiten dizkioten kalteak.

## 2. Edukiak

- Puntu berdea: Esanahia eta ontzien aurkezpena.
- Hondakinen murrizketa.
  - Soltean saltzea eta produktuei bilgarri gehiegi jartzea.
  - Otzien bolumena.
  - Hondakinen bolumena eta hondakinak murriztea.
  - Elikagaiak eta bolumena kontserbatzeko ontzietako itxitura motak.
- Ontziak berriz erabiltzea, birziklatzea eta birziklatzearen bizitza:
  - Papera eta kartoia.
  - Beira.
  - Metala.
  - Tetrabrick-a.
  - Plastikoa.
- Plastikoak eta beren sailkapena: Plastiko motak eta ezaugarriak.
- Elikagaien etiketa ekologikoa eta bidezko merkataritzakoa.
- Kontsumitzailearentzako informazioa.

### 3. Ariketak

#### 3.1. Aurretikoa

Aldez aurreko jardueran galdesorta bat egingo da, edukien aldez aurreko aktibazio gisa baliagarria, baita ontzietan agertzen diren ingurumen-informazioko sinboloen inguruan eta horiek egiteko erabilitako materialen ingurumen-inpaktuaren inguruan ikasleek duten ezagutza-maila neurtzeko ere.

1. Ontzi batean dagoen puntu berdeak hau esan nahi du:

- Ontzia birziklatua dela.
- Ontziratzaileak ontzi hori gaika biltzeko ordaindu duela.
- Ontzia ekologikoa dela.

2. Plastikozko ontzi batean, triangelua eratzen duten hiru geziren barruan ipinitako zenbakiak hau adierazten du:

- Ea birzikla daitekeen edo ez.
- Ontzia birziklatzeko erabili beharreko metodoa.
- Zein plastiko mota den, gero sailkatu eta birziklatzearren.

3. Murriztea hau da:

- Zaborra txiki-txiki egitea, sailkatu eta gero, ondoren birziklatzera eramateko.
- Ontzi gutxiago kontsumitzea, zabor edo hondakin gutxiago sortzeko.
- Sailkatzen, balorizatzen edo birziklatzen ez den zabor kopurua ahalik eta neurri txikienera ekartzea.

4. Adieraz ezazu, 1etik 3ra bitarteko zenbakiak ipinita, zure ustez zein lehentasun duten jokabide hauek ingurumen kudeaketa al bait ekologikoena egiteko:

- Murriztea: \_\_\_\_
- Berrerabilitzea: \_\_\_\_
- Birziklatzea: \_\_\_\_

5. *Birziklatze bizitza-k* hau esan nahi du:

- Material mota bat zenbat aldiz birzikla daitekeen.
- Produktu birziklatuak zenbateko iraupena izango duen.
- Produktu birziklatuari eman dakioken erabilera mota.

6. *Supermerkatuan, elikagaien atalean, kartoï birziklatuzko ontziak* aurkituko ditugu.

- Egia.
- Gezurra.

7. Nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuetako etiketa ekologikoak hau adierazten digu:

- Horiek ekoizteko ez direla erabili sintesiko produktu kimikoak, hala nola ongarririk, pestizidak edota antibiotikoak.
- Artisau metodoez egin direla, baliabide mekanikorik erabili gabe.
- Konposta egiten dela produktu horiek ekoiztean sortutako soberakinekin.

8. Marka ezazu birziklatu daitezkeen ontzi motak

- Metalezko ontziak.
- Kartoizko edo paperezko ontziak.
- Beirazko ontziak.
- Plastikozko ontziak.
- Brick ontziak.

9. Zein ingurumen irizpideri begira diezaiekegu erosketak egiten ditugunean?

---

---

---

10. Zein jokabide bururatzen zaizkizu, alferrikako zaborrak ez sortzeko?

---

---

---

---

### 3.2. Tailerrari dagokionez

#### **ARIKETA 1: PUNTU BERDEA**

Jarduera honen hasieran puntu berdea aurkeztuko da eta produktu errealetan ikusiko da.

#### **ARIKETA 2: INGURUMENA ERRESPETATZEN DUEN PRODUKTUAREN BILA**

Produktu ekologikoen eta bidezko merkataritzako produktuen esanahia eta etiketak azaldu ondoren, "jolasa" hasi egingo da: denbora tarte jakin batean, supermerkatuko produktu guztien artean mota horretako etiketak aurkitu behar dituzte ahalik eta ontzi gehienetan. Talde bakoitzak zenbat produktu aurkeztu, hainbat puntu lortuko ditu kreditu ekologikoko txartelean.

#### **ARIKETA 3: PLASTIKOAK, PLASTIKOEN SAILKAPENA ETA KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA**

Hasteko, ikasleei plastikoen sailkapena eta birziklatzeko duten aukerak aurkeztu. Plastiko motak nola bereiztu eta plastikoak birziklatzeko sailkatzea zein garrantzitsua den azaltzen zaie. Beraz, supermerkatuko ontziak zein plastiko motatakoak diren aztertzea, eta ontziratzaileek ematen duten informazioa erosteko irizpidetzat erabiltzen ikastea proposatzen zaie.

Taldekieek denbora tarte jakin bat izango dute, produktuen ontzietan aurpegi irribarretsua edo haserretua jartzeko, ontziaren plastiko motari buruzko informazioa ematen den arabera. Ontziei aurpegi zuzena jarrita lortuko dituzte puntuak.

#### **ARIKETA 4: HAUTESONTZIAK**

Taldeek 5 ontzi mota sartu beharko dituzte hautestontzietan: kartoi edo paperezkoak, beirazkoak, tetrabrick-ezkoak, metalezkoak eta plastikozkoak. 3 botazio egingo dira honako hiru irizpideen arabera: ontziak berriz erabiltzen diren, birziklatzen diren, eta birziklatzeak zein bizitza duen. Irizpide bakoitzarentzat 2 hautestontzi izango dituzte, eta bozkatu eta gero, botoak zenbatzean botoa zergatik eman duten azalduko dute. Gainera, boto bakoitza ematean hautestontzi onena eta txarrena zein diren hautatuko dute. Azkenik, puntuak zenbatuko dira.

#### **ARIKETA 5: ARRASTOAREN ATZETIK**

Jarduera honen bidez, erosteko irizpideak lantzen dira, hala nola galkorrak ez diren nahiz oso galkorrak diren produktuei bilgarri gehiegi jartzea, edota produktu horien ontzien bolumena edo neurria bezalako irizpideak. Oso galkorrak diren produktuei dagokienez, produktuak hobeto kontserbatzeko eta aprobetxatzeko itxitura motak ere landuko dira. Bestalde, aurretik ikusitako bestelako irizpideak birpasatuko dira.

Talde bakoitzak berdin-berdinak diren 6 arrasto izango ditu eta horien arabera egin beharko ditu erosketak. Ingurumenaren ikuspegitik erabakia ona bada, taldeak puntuak irabaziko ditu.

#### **ARIKETA 6: EROSKETAK ETA INGURUMENEAN DITUZTEN KOSTUAK**

Gelako ikasleak 2 taldetan banatu. Talde bakoitzari erosketen zerrenda bat eman. Erositako produktuak puntudun fitxekin trukatu dira, ingurumeneko irizpideak edo kostuak kontuan hartuta. Puntu gehien lortzen dituen taldeak irabaziko du. Izan ere, talde horrek ingurumena eta osasuna gehiago errespetatzen dituzten erosketak egin ditu.

#### 4. Gaitasunekiko lotura

##### 4.1. Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, OLH eta eskola-jatorria duten taldeak

Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia	Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia	Elkarbizitzarako kompetentzia	Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia
	✓	✓	

Izaten ikasteko kompetentzia	Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia	Matematikarako kompetentzia	Zientziarako kompetentzia
✓	✓		

Teknologiarako kompetentzia	Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia	Arterako kompetentzia	Kompetentzia motorra

##### 4.2. Beste talde batzuk

Ama-hizkuntzan komunikatzeko gaitasuna	Atzerriko hizkuntzetan komunikatzeko gaitasuna	Matematika-gaitasuna eta oinarrizko gaitasunak zientzia eta teknologiaren alorrean	Gaitasun digitala

Ikasten ikasteko gaitasuna	Gaitasun soziala eta zibikoa	Ekimenaren zentzua eta enpresa-espirtua	Kultura-arloko kontzientzia eta adierazpena
✓			

## 5. Baliabideak

### Informazio gidak

- KONTSUMITZAILE ETA ERABILITZAILEAREN GIDA. Eusko Jaurlaritza. Kontsumo eta Industria Segurtasuneko Zuzendaritza. 2007.
- KONTSUMO ARDURATSUAREN GIDA. Industria, Merkataritza eta Turismo Saila. 2009

### Material didaktikoak

- KONTSUMITZAILEAREN HEZKUNTZARAKO 133 TAILER. Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo Zuzendaritza. 2004.

### Web-orriak

- KONTSUMOPOLIS IZENeko LEHIAKETAREN WEBGUNEa  
<http://www.consumopolis.es/fichasniv2.aspx?idioma=cas&b=C>

### Helbide interesgarriak

Kontsumobide-ren kontsumoaren alorreko prestakuntza eta informazio zentroak

Vitoria-Gasteiz

Adriano VI, 20-1º. 01008

Telf: 945 01 66 00

[formacion-araba@kontsumobide.eus](mailto:formacion-araba@kontsumobide.eus)

Bilbao

Nicolas Alcorta, 2. 48003

Telf: 94 403 22 20

[formacion-bizkaia@kontsumobide.eus](mailto:formacion-bizkaia@kontsumobide.eus)

Donostia / San Sebastián

Zarategi ibilbidea 82-84 Atz. 20015

Telf: 943 02 25 90

[formacion-gipuzkoa@kontsumobide.eus](mailto:formacion-gipuzkoa@kontsumobide.eus)